

# **AURKEZPENA**

***JUAN MATEO ZABALA: SERMOIAK (I)***

*Euskararen Lekukoak-18*



## JUAN MATEO ZABALA: *SERMOIAK (I)*

### AURKEZPENA

*Bizkaiko Foru Diputazioan,  
1996-XI-28, goizeko 11etan.*

*Ricardo Badiola Uriarte,  
argitalpen eragilea*

Mahaibururuan:

1. Tomas Uribeetxebarria jauna, Bizkaiko Kulturako foru diputatua.
2. Jean Haritschelhar, euskaltzainburua.
3. Luis Villasante, euskaltzainburu ohia, euskaltzaina eta liburukiaren prestatzailea.

Aretoan izan dira, besteak beste, zenbait kazetari eta beste prentsa arduradun zenbaitzuk.

Goian aipaturikoetatik at, hurrengo hauek izan dira, alegia:

1. Euskaltzaindiko Zuzendaritzakoak, hots: Juan Mari Lekuona, buruordea; Endrike Knörr, idazkaria; J.A. Arana Martija, diruzaina; J.L. Lizundia, idazkariorde-kudeatzaile eta urgazlea.
2. Alfonso Irioi, euskaltzaina.
3. Beste zenbait urgazle: Karmel Etxenagusia, Xabier Gereño, Patxi Uribarren, Jose Antonio Retolaza, Federico de Barrenengoa, Andres Urrutia Badiola eta R. Badiola Uriarte.
4. Bestalde, Euskaltzaindiko lankideak: Rosa Mari Arza, liburua banatu duena kazetari eta etorri diren artean; Itziar Rekalde, liburukiaren jotzailea eta Pello Telleria, eragile-tekinikaria.
5. Argazkilaria: Dabit Zabala Enbeita.

*Mintzatu direnak:*

1. Tomas Uribeetxebarria, Bizkaiko Kulturako foru diputatua:

Zorionak Aita Luis Villasanteri Arantzazutik etorri eta liburuki bikain hau aurkeztera Bizkaiko Foru Aldundira hurbidu delako. Liburuki honetan, Aita Juan Mateo Za-

bala bilbotarrak bizkaiera goxoa eta aberatsa erabilten du bere sermoietan. *Sermoiak* dira, behar bada, askorentzat, aspergarriak..., baina hizkuntza aldetik bizkaieraren be-rezitasunak ikertzeko oso bikaina dela dakusagu, J.A. Mogel, Añibarro eta abarrekin batera.

Berriz ere, zorionak Aita Luis Villasanteri eta eskerrik asko burutu duen lanagatik. Zorionak, baita, Euskaltzaindiari egin duen ahaleginarengatik liburuki hau horren txu-kun eta bikain argitaratzeko.

## AITA JUAN MATEO ZABALA:

### *SERMOIAK (I)*

*Bilbo, 1996-11-28*

*J. Haritschelhar,  
euskaltzainburua*

Tomas Uribeetxebarria, Bizkaiko Kulturako Foru diputatu jaun agurgarria, Karmelo Etxenagusia, Bizkaiko apezpiku-orde eta euskaltzain urgazle jaun agurgarria, Euskaltzainkideak,

Andereak eta Jaunak, agur.

Bizkaiko Foru-Aldundiak eta Euskaltzaindiak harreman aspaldikoak dauzte. Duela bi urte Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko "Seme bikain" izendatu zuen Aita Luis Villasante euskaltzainburu ohia. Ospakizun egunean Aita Villasante-k galdegin zion Jose Alberto Pradera, orduko diputatu nagusiari diru-laguntza bat J.M. Zabalaren *Sermoiak* argitaratzeko. Erantzun ziolarik diputatu nagusiak hitzeman zion bi liburukitan agertuko ziren J.M. Zabalaren *Sermoiak* babestea.

Hitza hitz. Aurkezten dugu lehen liburukia egun Foru-Aldundi honetan, liburu edarra, bizkaiera garbi batean idatzia. Ene eskerrik beroenak doaz Bizkaiko Foru-Aldundiari lehenik, zuri bereziki Tomás Uribeetxebarria, Aita Villasanteri gero egin duen lanaren gatik ahanzi gabe honen laguntzaile guztiak: Itziak Rekalde Gasteizko ordezkartzan lanean ari dena jo duelakotz manuskrito osoa, Jose Luis Zurutuza, Arantzazuko fraide frantsiskotarra liburukia taiutzen eta orrazketak burutzen lagundu duelakotz, Rikardo Badiola Euskaltzaindiko argitalpen arduraduna, honen gain direlakotz liburuaren kudeaketa guziak.

Bizkaiera txukun eta argi bateko eredia da liburu hau. Ikus daiteke ez duela Euskaltzaindiak bizkaiera baztertzen, ez baititu sekulan euskalkiak arbuia, euskara batua bultzatzen baldin badu ere.

Berriz ere, eskerrik asko denoi.



## **AITA ZABALAREN EUSKAL SERMOIEN ARGITALPENA (1. liburukia)**

*Bilbo, 1996-XI-28*

*Luis Villasante,  
euskaltzaina eta liburukiaren prestatzailea*

Jaun agurgarriak:

Egun on denoi!

Gaur dudan poza ez da txantxetakoa. Hainbeste urte dira —neronek ere ez dakit zenbat—, Itziar Rekalde, Gasteizko Euskaltzaindiaren ordezkari zako langilea, hasi zela, nire eskariz, Aita Zabalaren euskal sermoiak ordenagailuz kopiatzen. Nire asmoa zen noizbait sermoi horiek argitaratzea. Eta horra non gaur ikusten dudan amets hori, neurri batean behintzat, betetzen hasia.

Nola ez dut, bada, neure poza agertuko eta eskerrak emango Bizkaiko Diputazioari? Batzutan iruditzen zait, liburua inprimatua ikustean, ametsetan nagoela.

Horrelako garrantzia ote du, bada, sermoi-liburu bat inprimatua ikusteak? esango du agian baten batek.

Ez dakit, baina nik dakidana da hizkuntza landu denetan idatzi diren idazki on, edo arrazoi bategatik edo bestegatik estimagarri direnak, argitaratu, edo holakoen bilduma behintzat, egiten dela. Hizkuntzaren altxorra dira, izan ere. Ikusten duzuenek, liburu honek ere “Euskararen lekukoak” bilduman 18. zenbakia darama.

Liburu honek, bada, arrazoi edo leku askotatik begiratuta, uste dut merezi duela kolekzio batean argitaraturik egotea. Fruituak eta ondorioak gero ikusten dira.

Niretzat egun zorionsua da, bada, gaurko hau benetan.

Aita Zabalaren sermioen lehenengo liburua —beraren eskuz idatzia— Bermeoko gure komentutik etorri zitzaidan, Aita Hilario Barrenak ekarria.

Irungo Pasionistetatik, berriz, Juan Jose Zearretak ekarri zidan bigarrena.

Eta Jerusalemdik Araozko semea den Aita Nikolas Zumaldek hirugarrena.  
Arantzazuko bibliotekan ere aurkitu dira Aita Zabalaren sermoi batzuk.

FRAY MATEO DE ZABALA

AITA JUAN MATEO ZABALAREN  
SERMOIAK (I)

**18**

Edizio kritikoa  
**Fr. Luis Villasante Kortabitarte**



Eta horiekin guztiekin bilduma bat egitea komeni zela iruditu zitzaidan. Gaur agerzen dena lehen tomoa besterik ez da. Eskerrak eman beharrean naiz, bada, Bizkaiko Diputazioari.

Nik uste dut euskara hobeki ezagutzeko eta sakontzeko mesede ederra egin dezaketela Aita Zabalaren sermoiek. Eskerrik asko, bada, Bizkaiko Diputazioari bere laguntzagatik!

\* \* \*

### A LA EXCMA. DIPUTACION DE BIZKAIA

Hace ya algunos años, con ocasión del homenaje que me tributó esta Excma. Diputación, tuve el atrevimiento u osadía de pedir al Sr. Pradera, entonces Diputado General, que la Diputación de Bizkaia costeara la publicación de los sermones vascos del Padre Juan Mateo de Zabala, franciscano bilbaino, que nació aquí en Bilbao en 1777, y murió en 1840 en el convento de Zarauz, donde residió muchos años, y de donde salía a predicar misiones en Bizkaia y parte de Alava, pues el dialecto vasco que él dominaba era el bizkaino, que lo sabía desde casa y después lo estudió y perfeccionó, y no parece que utilizara otro.

Hombre culto y muy dedicado a los estudios vascos, a él se debe la codificación del verbo vasco del dialecto bizkaino y otros trabajos, que, por la situación aciaga del país y de las Ordenes religiosas, el P. Zabala dejó inéditos al morir. Pero luego vino el Príncipe Vascófilo Bonaparte, quien publicó muchos de ellos a sus expensas. También la Diputación de Gipuzkoa publicó a sus expensas el verbo bizkaino codificado por el P. Zabala.

Desde el convento de Zarauz, pues, donde vivía, el P. Zabala salía a predicar —como hemos dicho— misiones, sermones, etc. a Bizkaia y pueblos de Alava en que se hablaba este dialecto.

Parece que al morir él, los sermones vascos suyos se los llevaron consigo algunos frailes exclaustros para servirse de ellos en sus predicaciones, etc. Al morir también éstos, los dichos sermones quedaron por ahí semiperdidos y desperdigados, hasta que al fin en nuestros días se han podido localizar, reunir y preparar para su publicación.

El P. Zabala, pues, ingresó franciscano en Bilbao, donde había nacido. Eran tiempos aciagos. En España reinaba José Bonaparte, el hermano de Napoleón. Cierta día, no sé con qué motivo, se levantó en el pueblo de Bilbao una algarada contra los franceses, y a la misma parece que se sumaron también los frailes del convento donde residía el P. Zabala. La reacción de la autoridad fue fulminante. El convento fue cerrado y los frailes expulsados del mismo.

Entonces nuestro Padre Juan Mateo de Zabala, huyendo, se fue hasta Galicia, y en un pueblo de Coruña —Herbón—, donde había un convento franciscano, residió durante un par de años o tal vez algo más. Se trataba de un convento de retiro y de frailes predicadores de misiones populares.

Al P. Zabala le gustó en extremo la vida que en él se hacía. Entonces recordó que también en su Provincia franciscana de Cantabria había un convento de esta índole —el de Zarauz—, y tomó la resolución de pedir —cuando volviera al país— ser destinado al dicho convento de Zarauz, como lo hizo en efecto. Digamos, pues, que fue en Galicia donde encontró su vocación. Es decir, la vocación de hacer una vida misionera, combinada con una vida de retiro y oración.

Es de advertir también que en estos sermones no se halla la más mínima alusión a la política. No porque ésta no existiera, sino porque el P. Zabala conocía demasiado el paño y, sin duda, estaba escarmentado. Sus sermones se limitan a exponer la doctrina y moral cristiana en su pureza, con algunos ejemplos y sucedidos. El sabe adaptarse al público sencillo que tiene delante.

## JUAN MATEO ZABALA: *SERMOIAK (I)*

*Bilbo, 1996-XI-29*

*Tomas Uribeetxebarria,  
Bizkaiko Kulturako foru diputatua*

Aita Luis Villasanteri Bizkaiko Foru Aldundiak omenaldia eskaini zionean euskararen alde egin duen lan luze eta oparoagatik, agindu zion baita ere Aita Juan Mateo Zabalaren sermoiak argitaratzen lagunduko zuela.

Hona non gauden argitalpen horren lehen alea aurkezten, eta horretarako Aita Villasante bera etorri zaigu Arantzazutik. Eskerrik asko, beraz, ohore hori egin diguzulako eta guztioi aukera eman egin duzun lana zurekin batera aurkeztu ahal izateko.

Jean Haritschelhar Euskaltzainburu jaunari, beste Euskaltzainei eta hona hurbildu zareten guztioi ere eskerrik beroenak.

Aita Juan Mateo Zabala bilbotarraren bizkaiera goxoa eta aberatsa da eta haren sermoiek aukera emango digute euskara hobeki ezagutzeko. Sermoiak direnez, haren lana aspergarri gerta dakiguke, baina euskararen eta formaren aldetik bizitasun handia lortu behar izaten zuten misiolariak eta horregatik sermoi horien irakurketak hizkuntzaren plazerra sortzen du.

Eskertzen diogu Aita Luis Villasante-ri egin duen lana eta jakin dezala, zorionik zintzoenez batera, bigarren alearen zai gauzkala.

Euskaltzaindiari ere zorionak eta eskerrak liburuki hau horren txukun eta arin argitaratzen egin duen ahaleginagatik.